




ikastolak



ZANGOZAKO IKASTOLA ZANGOZA



Ainhoa

IKASTOLAKO AMA ETA AEK-KO IKASLEA

“Nire semeak etxeko lanekin lagundu ditzaket”

Ainhoa, ikastolako ama bat da. Duela bi urte hasi zen AEKn euskara ikasten eta gaur egun, hitz egitea kostatzen du. Normalean dena euskaraz egiten saiatzen gara.

📍 Zangozako Ikastola

ZANGOZA– Zenbat urte daramazu euskara ikasten?

–Aurten bigarren mailan nago, lehenengo mailan ere ikasten ibili nintzen baina orain denbora gehiago dudanez berrartu dut.

Gustoko duzu Euskara ikastea AEKn?

–Bai, giroa oso ona da. Barnetegira joaten gara urtean behin eta han oso ongi pasatzen dugu. Irakaslea oso jatorria da. Oraindik hitz egitea lotsa ematen dit eta urduri jartzen naiz. Asko ulertzen dut baina oraindik lotsa kentzea kostatzen zait.

Nola enteratu zinen AEK zegoela?

–Amaia irakaslea ezagutzen dudalako eta berak animatu ninduen izena ematera.

Esango zenukete euskara ongi ikasten dela AEKko klaseetan?


–Bai, dibertigarria da eta taldean lan egiten dugu. Ez dago presiorik eta ikasten dugun bitartean ongi pasatzen dugu eta erlazio berriak egiten ditut. Normalean dena euskaraz egiten saiatzen gara.

Zer pentsatzen duzu euskaldunak eta ikastolako ikasleak gaztekeraz hitz egiten ikusten dituzunean?

–Nire ama hizkuntza gatzelania da eta gaztekeraz hitz egiteko joera dut. Nire bi semeekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz baina ohitura falta dugu eta arraroa egiten da. Euskaldunak direnak euskaraz hitz egin behar dutela uste dut.

Zer esango zenuke jendea AEKn apuntatzeko?

–Oso interesgarria da nire semeak ikastolako lanekin lagundu ahal ditudalako. Etxeko lanekin zailak dituztenean orain gauzak ulertzen ditut eta lagundu dezaket. Ikastolako oharrak ere ulertzeko gai naiz. Gainera, nire semeekiko orain eredu naiz eta lan egitearen eta ikastearen garrantzia helarazi nahi diet. Gainera, haiek euskaraz gehiago hitz egitea eta erabiltzea nahi dut. ●



Ainhoa, bere bi semeekin.



Amaia, erdian, bere ikasleez inguratuta.

Amaia

ZANGOZAKO AEK-KO IRAKASLEA

“Ikasleei Korrika transmititzea hunkigarria da”

AEK euskaltegiko irakaslea izateaz gain, Amaiak bigarren koordinatu du Korrika, euskararen aldeko lasterketa, Zangozako eskualdean.

📍 Zangozako Ikastola

ZANGOZA– Zenbat aldiz izan zara korrikako koordinatzailea?

–Amaia naiz 29 urte ditut eta Zangozan bizi naiz. Aurreko Korrikan hasi nintzen AEKn lanean eta oso gustura nago, euskara irakaslea naiz eta jende helduarekin lan egiten dut. Aurten eskualdea antolatzen nire bigarren Korrika izan da.

AEKn zenbat ikasle daude Zangozan?

–Zangozan eskualde osoan ikasleak ditugu, Zangozako bertakoak eta baita Oibar, Esa, Ledea, Irunberri eta Kasedakoak. Hemen bi talde ditugu, orotara 25 dira Zangozan. Horrez gain, Irunberrin ere talde bat dugu, hauek maila altuagoa dute eta 10 ikasle inguru dira.

Zer nolako perfila dute zure ikasleak?

–Perfil guztietako ikasleak ditugu, baina batez ere 30 urte ingurukoak dira, txikitan euskara ikasteko aukerarik izan ez dutenak. Gainera guraso asko ditugu eta oso kontzientzia-ituak daude euskara ikasteko beraien seme-alabekin erabiltzeko. 4 guraso ditugu euskara ikasten Ainhoa, Txema, Bittor eta Susana. Aitona bat ere badugu, Diego.

Zertarako eta zergatik egiten da Korrika? Lan asko dago?

–Korrika Euskal Herri osoan zehar

egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Bai lan izugarria da. Lehenengo herrietan biltzen gara Korrika herri-herri antolatze eta ondoren, herrietan ekitaldiak egiten ditugu Korrika ezagutarazteko eta herriak animatzeko. Gainera, kilometroak herriko elkarre, kuadrila eta enpresen artean saldu behar dira, eta horiek dira gero lekukoa herri batetik bestera eramaten dutenak.

Zein da gehien gustatu zaizun Korrika?

–Denak gustatu zaizkit eta guztiak izan daitezke gogora ekartzekoak. Oso ongi gogoratzen ditut adibidez nire nerabezaro garaioak, guk geuk ikastolan gauzak antolatzen genituelako. Zirrara handiz gogoratzen dut Tuteratik hasi zen Korrika hura, iteera telebistatik ikusi nuelako eta oso berezia izan zen.

Nola bergogoratzen duzu txikia zinen Korrika?

–Oso oroitzapen politak ditut. Nik Jaso Korrika ikasi nuen eta bertan ere Korrika lantzen eta ospatzen genuen. Ikastolan eta nire familian jaso nuen euskararen aldeko mezua eta horregatik gaztetatik lanean aritu naiz euskararen alde eta orain Zangozako AEKko irakaslea naiz. Korrikaren kanta zaharrak entzuten ditudanean txikia nintzen garai horiek ekartzen ditut gogora eta gaur egun nire ikasleei hori transmititzea oso hunkigarria eta polita da. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK


1. Zenbat urte darama Ainhoak AEKn?
2. Non ikasi zuen Amaiak?
3. Zenbat urte inguru dituzte Amaiaren ikasleak AEKn?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Irantzu Irisarri (Baztan Ikastola).

OINEZ BALEA (2): Aimar Garcia (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.